



ENPRESA EKIMEN BERRIEI ZUZENDUTAKO DIRULAGUNTZAK

1. Helburua

Deialdi honen helburua Aretxabaletan martxan jartzen diren enpresa ekimen berrien sorrerarako dirulaguntzak bideratzea da.

Deialdi honetako laguntzak Aretxabaletako Udalak 2022ko martxoaren 9ko osoko bilkuran onartutako 2022-2024 ekitaldirako dirulaguntzen plan estrategikoan aurreikusita daude.

2. Onuradunak

Dirulaguntza hauetara ondorengo baldintzak betetzen dituzten ekintzaileak aurkeztu ahal izango dira:

– Edozein forma juridikotako ekimenak, baita autonomoak ere, 15 pertsona baino gutxiagoko plantilla dutenak.

– Aretxabaletan lantokia duten enpresa ekimen berriak (berdin da ekintzailea Aretxabaletan erroldatuta dagoen edo ez), eta gehienez ere eskabidea egiten den unean urte biko jarduna dutenak.

*EJZn alta eman aurreko data duten fakturak izanez gero, EJZn alta eman aurreko 6 hilabeteetatik aurrerako fakturak hartuko dira kontuan.

***Negozioen jarraipena bultzatzeko:**

– Ekimena eskualdaketa edo titulartasun aldaketa denean.

– Jarduera berri bat sortzea (EJZ), produktua/zerbitzua dibertsifikatuz.

– Jarduera lizentzia edo/eta jardueraren aurre komunikazioaren onarpena izan duten ekintzaileak, nahiz eta dirulaguntza eskatzeko unean EJZn alta emanda bi urte baino gehiago igaro diren, eta beti ere, ez badira bi urte baino gehiago igaro EJZn alta berria (helbide berria) ematen denetik.

– Bideragarritasun Plana eginda dutenak (Bideragarritasun Plana dohainik egin daiteke Mankomunitatean) eta Debagoieneko Mankomunitateak, Udaleko Enplegu eta Garapen Ekonomikoa Sailak edo enpresa sorrerara bideratutako beste edozein erakundek lagundutako ekimenak izatea.

– Gizarte Segurantzaren alta emanda egon beharko dute.

SUBVENCIONES DESTINADAS A NUEVAS INICIATIVAS EMPRESARIALES

1. Objeto

El objeto de la presente convocatoria es destinar subvenciones para la creación de nuevas iniciativas empresariales en Aretxabaleta.

Las ayudas de la presente convocatoria se encuentran previstas en el Plan Estratégico de Subvenciones aprobado por el pleno de fecha 9 de marzo de 2022 para el período 2022-2024

2. Beneficiarios-as

A la presente convocatoria de subvención podrán presentarse todos-as aquellos-as emprendedores-as que cumplan las siguientes condiciones:

– Iniciativas de cualquier naturaleza jurídica, incluso autónomos-as, cuya plantilla sea inferior a 15 personas.

– Nuevas iniciativas empresariales que se promuevan en el término municipal de Aretxabaleta (independientemente si el-la emprendedor-a esté empadronado-a o no en Aretxabaleta) y que su actividad se encuentre en funcionamiento como máximo durante dos años, en el momento de realizar la solicitud.

*En el caso de existir facturas con fecha previa al alta en el IAE, se tendrán en cuenta las facturas a partir de los 6 meses anteriores al alta en el IAE.

***Para favorecer la continuidad de los negocios:**

– Iniciativa que sean el resultado de un traspaso o un cambio de titularidad.

– Creación de una nueva actividad (IAE) mediante la diversificación de producto/servicio.

– Emprendedores que hayan obtenido la licencia de actividad y/o aceptación de la comunicación previa de la actividad, aunque en el momento de la solicitud de la subvención hayan transcurrido más de dos años desde el alta inicial en el IAE, y no hayan transcurrido más de dos años desde la nueva alta en el IAE (nuevo domicilio).

– Aquellos-as que cuenten con un Plan de Viabilidad (Existe la posibilidad de realizar el Plan de Viabilidad en la Mancomunidad sin coste alguno) y se traten de iniciativas fomentadas por la Mancomunidad del Alto Deba, el Dpto. de Empleo y Desarrollo Económico del Ayuntamiento o cualquier otra entidad destinada a la creación de empresas.

– Deberán estar dados de alta en la Seguridad Social.



Enpresa ekimen berri hauek, gutxienez 3 urtean egoitza Aretxabaletan mantentzeko konpromisoa hartu beharko dute.

Laguntza honetatik kanpo geratuko dira:

- Pertsona fisiko zein pribatuz osatutako edozein motatako elkarteak eta Fundazioak.
- Bezero bakarria duten enpresak (fakturazioaren %75a denean).

3. Laguntza motak eta zenbatekoak

Enpresa ekimen berrien kasuan, dirulaguntzen xede izango dira:

- Hasierako inbertsioak. Enpresak 3.000 euroko inbertsio minimoa (BEZa kontutan hartu gabe) egin beharko du ondorengo kontzeptuetan:

- * Lokala egokitzeko egin beharreko obrak (proiektua barne).
- * Enpresaren jarduerarako beharrezko garraio elementuak.
- * Jarduera garatzeko beharrezkoak diren altzariak eta ekipamenduak.
- * Jarduera martxan jartzeko hasierako izakinen erosketak (kasu honetan EJZn alta ematen denetik lehenengo 6 hilabeteetako fakturak bakarrik hartuko dira kontuan).
- * Informatika ekipoa (hardware eta software).

Dirulaguntzatik kanpo geratuko dira ondasun higiezinaren erosketengatik egindako inbertsioak.

Hasierako inbertsioaren %20a izango da onartuko den laguntzaren zenbatekoa, 6.000 €-ko mugarekin.

- Enpresa eratze gastuen %100a finantzatuko da (BEZa kontutan hartu gabe), 500 euroko topearekin. Honako kontzeptu hauek hartzen dira eraketa-gastutzat: notaritzak, erregistroa eta aholkularitza.

4. Bestelako laguntzekiko bateragarritasuna

Aretxabaletako Udalak herrian egoitza jartzen duten enpresa ekimen berriei zuzentzen den laguntza hau bateragarria izango da, Administrazio Publikoek edo bestelako erakunde pribatuek emandako beste edozein dirulaguntzarekiko, baina dirulaguntza guztien zenbatekoak ezin izango du diruz lagundutako jardueraren guztizkoa gainditu, eta kasu horretan Udaletik emandako dirulaguntza gutxituko da, soberako kopurua kenduta.

Hortaz, ekintzaileak bestelako erakunde publiko eta pribatuen aldetik jasotako laguntzen berri emango dio Udalari, zinpeko aitortpen bidez datuen egiazkotasuna ziurtatuz.

Estas nuevas iniciativas empresariales, deberán comprometerse a mantener su sede social en Aretxabaleta por un período de 3 años, como mínimo.

Están excluidos-as de estas ayudas:

- Las asociaciones y fundaciones de todo tipo compuestas por personas físicas o privadas.
- Empresas con un único cliente (que suponga el 75% de la facturación).

3. Tipos de ayudas y cuantías

En el caso de nuevas iniciativas empresariales, serán objeto de subvención:

- Las inversiones iniciales. La empresa deberá realizar una inversión mínima de 3.000 euros (IVA no incluido) en los conceptos siguientes:

- * Obras necesarias para acondicionar el local (proyecto incluido).
- * Elementos de transporte de uso exclusivo para la actividad.
- * Mobiliario y equipamiento necesario para el desarrollo de la actividad.
- * Compra o aprovisionamiento de existencias iniciales para poner en marcha el negocio (en este caso se tendrán en cuenta solamente facturas de los 6 primeros meses después de darse de alta en el IAE).
- * Equipos informáticos (hardware y software).

Quedan excluidas las inversiones realizadas por compra de inmuebles.

El importe de la subvención será de un 20% de la inversión inicial realizada, con un límite de 6.000 €.

- Se financiará el 100% de los gastos de constitución de la empresa (IVA no incluido), con un tope de 500 euros. Se consideran como gastos de constitución los siguientes conceptos: notaría, registro y asesoría.

4. Compatibilidad con otras subvenciones

Estas ayudas destinadas por el Ayuntamiento de Aretxabaleta a nuevas iniciativas empresariales cuya sede social se encuentre ubicada en el municipio serán compatibles con aquellas subvenciones concedidas por las Administraciones Públicas o entidades privadas, no pudiendo superar la cuantía de todas ellas el importe total de la actividad subvencionada, en cuyo caso se reducirá la subvención concedida por el Ayuntamiento en una cuantía igual al importe superado.

En consecuencia, el-la emprendedor-a deberá poner en conocimiento del Ayuntamiento las subvenciones recibidas de otros organismos tanto públicos como privados, certificando los datos mediante una declaración jurada.

5. Plazo de presentación de solicitudes



5. Dirulaguntzak aurkezteko epea

Dirulaguntzen deialdia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN publikatzen den unetik 2023ko azaroaren 30era egongo da zabalik, beti ere diru funtsa agortu bitartean.

6. Eskabideen azterketa eta ebaluazioa

Deialdi honetara zuzendutako dirulaguntzak esleitutako aurrekontu poltsa agortu artekoak izango dira. Hau da, Udalak egiten duen deialdi hau lehia askean oinarrituko da, eskabideak jaso ahala joango direlarik ebaluatzen eta dirulaguntzak bideratzen.

7. Aurkeztu beharreko dokumentazioa

Negoio ekimen berri bat herrian jarri nahi duten ekin-tzaileek, JEZn altan emanda egon beharko dute eta lehenik eta behin, eskabidea telematikoki aurkeztu beharko dute Udaleko web orriaren bitartez, eta ondorengo dokumentuak atxikitu beharko dira:

– Enpresa ekimen berriaren jardueraren inguruko azalpen laburra.

Honekin batera aurkeztu beharko den gainontzeko dokumentazioa honakoa izango da:

- Enpresa proiektuaren Bideragarritasun Plana.
- Egindako inbertsio eta gastuen ziurtagiriak.
- Sozietatearen eratze eskritura eta estatutuen kopia.
- Mankomunitateko, Udaleko Enplegu zerbitzuko edo enpresa sorreran lanean diharduen bestelako erakunde baten laguntza jaso denaren ziurtagiria.
- Dirulaguntza helbideratzeko kontu korrante zenbaki bat.
- Aretxabaletako Udalak beharrezkoa dela iritzi dezakeen bestelako dokumentazio gehigarria.

Behin dokumentazio hau aurkeztuta, Aretxabaletako Udalak 3 hilabeteren epean asko jota, interesdunei hartutako erabakiaren gainean informatuko die.

Erabakia komunikatzen den momentutik 30 egun naturaleko epean ordainduko da dirulaguntza, ekin-tzaileak ahalbidetutako kontu korrante zenbakian.

Bestalde, ekintzaileak deialdi honetan aipatzen diren baldintzetakoren bat ez duela bete frogatzen bada, honek Aretxabaletako Udalarik dirulaguntzaren %100a itzuli beharko dio.

8. 2023. urterako aurrekontu partidaren izendapena

Esta convocatoria de subvención estará en vigor desde el momento en que se publique en el BOLETÍN OFICIAL de Guipúzcoa hasta el 30 de noviembre de 2023, siempre y cuando no se agote el crédito asignado para ello.

6. Evaluación y valoración de las solicitudes

Las subvenciones previstas en la presente convocatoria estarán en vigor hasta agotarse el crédito asignado para las mismas. Es decir, esta convocatoria se basará en la libre concurrencia, siendo evaluadas las solicitudes y concedidas las subvenciones por orden de presentación de estas.

7. Documentación a presentar

Aquellos-as emprendedores-as que pretendan poner en marcha una nueva iniciativa empresarial en el municipio, deberán de estar dudas de alta en el IAE y deberán, en primer lugar, presentar la solicitud telemáticamente a través de la página web del ayuntamiento debiendo adjuntar la siguiente documentación:

– Breve memoria explicativa relativa a la actividad de la nueva iniciativa empresarial.

Además, deberá presentar la siguiente documentación:

- Plan de Viabilidad del proyecto empresarial.
- Certificados de las inversiones y gastos realizados.
- Escritura de constitución de la sociedad y copias de los estatutos.
- Certificado del asesoramiento recibido, en su caso, de la Mancomunidad, del Servicio de Empleo del Ayuntamiento o de otro organismo en activo en el momento de la creación de la empresa.
- Número de cuenta corriente para la domiciliación de la subvención.
- Otra información adicional que el Ayuntamiento de Aretxabaleta pueda considerar necesario.

Una vez presentada la documentación, el Ayuntamiento de Aretxabaleta informará a los-as interesados-as del acuerdo adoptado, en el plazo máximo de 3 meses.

El abono de la subvención será realizado en un plazo de 30 días naturales contados a partir del momento en que se comunica la resolución, en la cuenta corriente facilitada por el-la emprendedor-a.

Si se comprobase que el-la emprendedor-a no cumple con alguna de las condiciones señaladas en la presente convocatoria, el-la mismo-misma deberá devolver el 100% de la subvención al Ayuntamiento de Aretxabaleta.

8. Dotación de partida presupuestaria para el año 2023

Para la citada convocatoria de ayudas se cuenta con 10.000€ de la siguiente partida presupuestaria: «0102.771.241.00.01: Subvención de capital para iniciativas empresariales».



Dirulaguntza deialdi honetarako 25.000€-ko aurrekontuarekin kontatzen da, ondoko diru partidatik: «0102.771.241.00.01: Kapital dirulaguntza enpresa ekimenetarako».

KONTRATAZIO BERRIEI ZUZENDUTAKO DIRULAGUNTZAK

1. Helburua

Deialdi honen helburua Aretxabaletan jarduera duten enpresei, egindako kontratazio berriengatik dirulaguntzak bideratzea da.

Laguntza honekin, Udalak herrian lanpostu berrien sorrera eta mantentzea bultzatu nahi ditu eta zailtasun handienetan dauden herritarren laneratze prozesuan lagundu, horretarako pizgarriak eskainiz bertako enpresei, herritarrek kontratatzeko.

Deialdi honetako laguntzak Aretxabaletako Udalak 2022ko martxoaren 9ko osoko bilkuran onartutako 2022-2024 ekitaldirako dirulaguntzen plan estrategikoan aurreikusita daude.

2. Onuradunak.

Dirulaguntza hauetara JEZn alta emanda eta ondorengo baldintzaren bat betetzen dituzten enpresak aurkeztu ahal izango dira:

- Lantokia Aretxabaletan duten 50 langile baino - gutxiagoko edozein figura juridikotako enpresak.
- Aretxabaletako komertzio eta merkataritza negozioak.
- Lantokia Aretxabaletan duten eta autonomo bezala lanean diharduten profesionalak.

Kasu guztietan, enpresa hauek kontratatutako pertsonak Aretxabaletan erroldatuta egon beharko dute eta hauei egingo zaien kontratua mugagabea (jardun osokoa zein partziala) edo gutxienez urte betekoa izango da (hau ere, jardun osokoa zein partziala).

Enpresak indarrean dagoen lan legediaz kanpoko baldintzetan eskulanik ez du erabiliko.

Enpresak helburu bererako eskatu edo jaso dituen beste dirulaguntza batzuei buruzko informazioa, laguntzen zenbatekoak eta hauen egoera aipatu beharko du.

Deialdi honetan aipatzen diren baldintzak bete ezean, dirulaguntza itzuli beharko da.

Kontratu berri hauek 2022ko abenduaren 1etik dirulaguntza hau eskatzeko epea bukatu arte formalizatu ahal izango dira. Gainera, plantillaren gehikuntza netoa suposatuta beharko dute, aurreko 6 hilabetekoarekin konparatuz.

SUBVENCIONES DESTINADAS A NUEVAS CONTRATACIONES

1. Objeto

El objeto de la presente convocatoria es destinar subvenciones para nuevas contrataciones a aquellas empresas cuya actividad se desarrolla en Aretxabaleta.

Mediante dicha subvención, el Ayuntamiento desea fomentar la creación de nuevos puestos de trabajo y el mantenimiento de los mismos en el municipio, así como colaborar en el proceso de inserción laboral de las personas con serias dificultades, incentivando para ello a las empresas locales, para su contratación.

Las ayudas de la presente convocatoria se encuentran previstas en el Plan Estratégico de Subvenciones aprobado por el pleno de fecha 9 de marzo de 2022 para el período 2022-2024

2. Beneficiarios-as

A la presente convocatoria de subvención podrán presentarse todas aquellas empresas dadas de alta en el IAE y que cumplan alguna de las siguientes condiciones:

- Pequeñas y medianas empresas con sede en Aretxabaleta, cualquiera que sea su figura jurídica, y con una plantilla no superior a los 50 trabajadores.
- Establecimientos y negocios comerciales de Aretxabaleta.
- Profesionales autónomos cuya actividad se encuentre ubicada en Aretxabaleta.

En cualquier caso, las personas contratadas por dichas empresas deberán estar empadronadas en Aretxabaleta y el contrato que se les formalizará deberá ser indefinido (a jornada completa o parcial) o como mínimo de un año (a jornada completa o parcial).

La empresa de ninguna manera podrá utilizar mano de obra incumpliendo las condiciones de la actual legislación laboral.

La empresa deberá de informar otras subvenciones que haya podido recibir, señalando la cuantía de la subvención y su situación.

Se deberá de devolver la subvención recibida, a menos que cumpla todas las condiciones señaladas en esta convocatoria.

Dichos contratos deberán formalizarse a partir del 1 de diciembre del 2022, hasta finalizar el plazo de solicitud de las ayudas. Además, deberán implicar un incremento neto de la plantilla de personal respecto a lo referente a los 6 meses anteriores.



Laguntza honetatik kanpo geratuko dira pertsona fisiko zein pribatuek osatutako edozein motatako elkarteak eta Fundazioak.

3. Laguntza motak eta zenbatekoak

Dirulaguntza hauen xede izango dira Aretxabaletan lantokia duten enpresek, eskabidea egiten den urtealdian, egindako kontratazio berriak (kontratazio berri hauek plantillaren gehikuntza suposatu beharko dute). Kontratazio berri hauengatik ondorengo zenbatekoak jasoko dira:

- Kontratu mugagabeak jardunaldi osoan: 2000 €.
 - Kontratu mugagabeak jardunaldi partzialarekin: Goikoarekin proportzionala.
 - Urte beteko kontratuak jardunaldi osoan: 1000 €.
 - Urte beteko kontratuak jardunaldi partzialarekin: Goikoarekin proportzionala.
- Kontratu mugagabeei 3 urtean egingo zaie jarraipena, eta jardunaldi partzialeko kontratuak gutxienez egun erdikoak izan beharko dira.

Goiko kopuru hauei %15a gehituko zaie, kontratatutako pertsona ondoko hauetako bat baldin bada:

- Denbora luzean (urte bete baino gehiago) langabezia dagoen pertsona.
 - Emakumea.
 - 45 urte baino gehiago dituen pertsona.
 - Gutxienez %33ko ezintasunen bat duen pertsona.
- Gizarteratzeko programaren baten hartu duen edo Aretxabaletako Udaleko gizarte laguntzak jasotzen dituen pertsona.

Dirulaguntza jaso ahal izateko enpresa batek gehienez 2 kontratazio aurkez ditzake urtean. Horrez gain, enpresa bakoitzeko emango den laguntza ez da 4.000 € baino gehiagokoa izango.

Deialdira aurkeztutako kontratuak, goian aipatzen diren baldintzak bete ezean (kontratuen iraupen minimoak eta jardun minimoak), enpresak dirulaguntza itzuli beharko dio Udalari. Konkretuki:

- Kontratuen etetea justifikagarria bada enpresaren egoera ekonomiko larria dela eta, enpresak bete ez dituen baldintzen araberako dirulaguntzaren proportzioa itzuli beharko du.
- Kontratuen etetea kaleratze bidegabea erabilita egin bada, enpresak jasotako dirulaguntzaren %100a itzuli beharko dio Udalari, eta horrez gain, aurrerantzean dirulaguntza hau eskatzeko aukera galduko du.

Aretxabaletako Udalak gorde egiten du eman beharreko diru kopuruak murriztu edo deuseztatzeko ahalmena, testu honetan era esplizituan jaso ez arren, Udalak, programaren koherentzia bermatzeko garrantzitsutzat - jotzen dituen gora beherak direla eta.

Quedarán excluidos-as de estas ayudas las asociaciones y fundaciones de todo tipo compuestas por personas físicas o privadas.

3. Tipos de ayudas y cuantías

Serán objeto de subvención todas aquellas nuevas contrataciones efectuadas por empresas con sede en Aretxabaleta (estas nuevas contrataciones deberán suponer un incremento de la plantilla), durante el año en que se realice la solicitud. Por dichas contrataciones se recibirán las siguientes cantidades:

- Contratos indefinidos a jornada completa: 2000 €.
- Contratos indefinidos a jornada parcial: Proporcional al anterior.
- Contratos por período de un año a jornada completa: 1000 €.
- Contratos por período de un año a jornada parcial: Proporcional al anterior.

A los contratos indefinidos se les realizará un seguimiento durante 3 años, y los contratos a jornada parcial deberán ser como mínimo de media jornada.

A las cantidades anteriormente señaladas se les incrementará un 15%, si la persona contratada es alguna de las que se menciona a continuación:

- Parado-a de larga duración (superior a un año).
- Mujer.
- Persona de más de 45 años.
- Persona con discapacidad mínima del 33%.
- Participante en algún programa de inserción social, o beneficiario de alguna de las ayudas sociales del Ayuntamiento de Aretxabaleta.

Cada empresa podrá presentar no más de 2 nuevas contrataciones anuales a la convocatoria de estas subvenciones. Además, la cuantía de la subvención que se concederá por empresa no superará los 4.000 €.

Aquellos contratos que se presenten a la convocatoria deberán cumplir las condiciones señaladas con anterioridad (duración mínima de los contratos y jornada mínima); de lo contrario la empresa deberá devolver la subvención al Ayuntamiento. Concretamente:

- Si la rescisión del contrato fuese justificable por razones de situación económica grave de la empresa, la empresa deberá devolver la cuantía proporcional de la subvención, en función de las condiciones incumplidas.
- Si la rescisión del contrato es como consecuencia de un despido improcedente, la empresa deberá devolver al Ayuntamiento el 100% de la subvención percibida, no pudiendo optar en adelante a solicitar más esta subvención.

El Ayuntamiento de Aretxabaleta se reserva la potestad de reducir o incluso anular las cantidades a conceder en cada caso, en función de otras circunstancias no contempladas de forma explícita en este documento,



4. Bestelako laguntzekiko bateragarritasuna

Aretxabaletako Udalak herrian lantokia duten enpresek egindako kontratazio berriei zuzentzen dien laguntza hau bateragarria izango da, Administrazio Publikoek edo bestelako erakunde pribatuek emandako beste edozein dirulaguntzarekiko, baina dirulaguntza guztien zenbatekoak ezin izango du diruz lagundutako jardueraren guztizkoa gainditu, eta kasu horretan Udaletik emandako dirulaguntza gutxituko da, soberako kopurua kenduta.

Hortaz, enpresak bestelako erakunde publiko eta pribatuen aldetik jasotako laguntzen berri emango dio Udalari, zinpeko aitortpen bidez datuen egiazkotasuna ziurtatuz.

5. Dirulaguntzak aurkezteko epea

Dirulaguntzen deialdia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN publikatzen den momentutik 2023ko azaroaren 30era egongo da zabalik, beti ere diru funtsa agortu bitartean.

6. Eskabideen azterketa eta ebaluazioa

Deialdi honetara zuzendutako dirulaguntzak esleitutako aurrekontu poltsa agortu artekoak izango dira. Hau da, Udalak egiten duen deialdi hau lehia askean oinarrituko da, eskabideak jaso ahala joango direlarik ebaluatzen eta dirulaguntzak bideratzen.

7. Aurkeztu beharreko dokumentazioa

Kontratazio berriengatik dirulaguntzak jaso nahi dituzten enpresek, lehenik eta behin, eskabidea telematikoki aurkeztu beharko dute Udaleko web orriaren bitartez, eta enpresaren eta harremanetarako pertsonen datuekin batera ondorengo dokumentuak atxikitu beharko dira:

– Egingo den kontratazio berriaren inguruko informazioa: Lanpostuaren beharrezanaren justifikazioa, lanaren nondik norakoak, kontratazioaren baldintzak, etab.

Honekin batera aurkeztu beharko den gainontzeko dokumentazioa honakoa izango da:

- Gizarte Segurantzako erregimenean altan egotearen fotokopia.
- TC1 eta TC2, Gizarte Segurantzari egindako azken deklarazioa.
- Langile berrien kontratuen eta Gizarte Segurantzako alden kopiak.
- Dirulaguntza helbideratzeko kontu korrante zenbaki bat.
- Kontratututako pertsonak ondorengo kolektibo hauetakoren batekoak direla frogatzen duten agiriak:

pero que considere inadecuadas para garantizar la coherencia del programa.

4. Compatibilidad con otras subvenciones

Estas ayudas destinadas por el Ayuntamiento de Aretxabaleta a nuevas contrataciones por parte de empresas con sede social en el municipio serán compatibles con aquellas subvenciones concedidas por las Administraciones Públicas o entidades privadas, no pudiendo superar la cuantía de todas ellas el importe total de la actividad subvencionada, en cuyo caso se reducirá la subvención concedida por el Ayuntamiento en una cuantía igual al importe superado.

Así, la empresa deberá poner en conocimiento del Ayuntamiento las subvenciones recibidas de otros organismos tanto públicos como privados, certificando los datos mediante una declaración jurada.

5. Plazo de presentación de solicitudes

Esta convocatoria de subvención estará en vigor desde el momento en que se publique en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa hasta el 30 de noviembre del 2023, siempre y cuando no se agote el crédito asignado para ello.

6. Evaluación y valoración de las solicitudes

Las subvenciones previstas en la presente convocatoria estarán en vigor hasta agotarse el crédito asignado a las mismas. Es decir, esta convocatoria se basará en la libre concurrencia, siendo evaluadas las solicitudes y concedidas las subvenciones por orden de presentación de las mismas.

7. Documentación a presentar

Aquellas empresas que pretendan ser receptoras de subvención por nuevas contrataciones deberán, en primer lugar, presentar la solicitud telemáticamente a través de la página web del Ayuntamiento, cumplimentado con los datos de la empresa y de la persona de contacto y debiendo adjuntar la siguiente documentación:

– Información relativa a la nueva contratación: Justificación de la necesidad del nuevo puesto de trabajo, descripción del trabajo a desarrollar, condiciones de contratación, etc.

Además, deberá presentar la siguiente documentación:

- Fotocopia de encontrarse dado de alta en el régimen de la Seguridad Social.
- Última declaración ante la Seguridad Social del TC1 y TC2.
- Contratos de los-las nuevos-as trabajadores-as y copias de hallarse dados de alta en la Seguridad Social.
- Número de cuenta corriente para la domiciliación de la actividad.



- * Denbora luzean (urtebete baino gehiago) langabezian dagoen pertsona.
- * Emakumea.
- * 45 urte baino gehiago dituen pertsona.
- * Gutxienez %33ko ezintasunen bat duen pertsona.
- * Gizarteratzeko programaren baten parte hartu duen edo Aretxabaletako Udaleko gizarte laguntzak jasotzen dituen pertsona.

Behin dokumentazio hau aurkeztuta, Aretxabaletako Udalak 3 hilabeteren epean asko jota, interesdunei hartutako erabakiaren gainean informatuko die.

Erabakia komunikatzen den momentutik 30 egun naturaleko epean ordainduko da dirulaguntza, enpresak ahalbidetutako kontu korrante zenbakian.

8. 2023. urterako aurrekontu partidaren izendapena

Dirulaguntza deialdi honetarako 10.000 €-ko aurrekontuarekin kontatzen da, ondoko diru partidatik: «0102.471.241.00.01: Dirulaguntza arrunta enpresa ekimenetarako».

— Documentación acreditativa de que las personas contratadas pertenecen a alguno de los siguientes colectivos:

- * Parado-a de larga duración (superior a un año).
- * Mujer.
- * Persona de más de 45 años.
- * Persona con una discapacidad mínima del 33%.
- * Participante en algún programa de inserción social, o beneficiario de alguna de las ayudas sociales del Ayuntamiento de Aretxabaleta.

Una vez presentada la documentación, el Ayuntamiento de Aretxabaleta informará a los-as interesados-as del acuerdo adoptado, en el plazo máximo de 3 meses.

El abono de la subvención será realizado en un plazo de 30 días naturales contados a partir del momento en que se comunica la resolución, en la cuenta corriente facilitada por la empresa.

8. Dotación de partida presupuestaria para el año 2023

Para la citada convocatoria de ayudas se cuenta con 10.000€ de la siguiente partida presupuestaria: «0102.471.241.00.01: Subvención corriente para iniciativas empresariales».